



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 29a

106. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00009. Foru Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—10-22/PRO-00014. Foru Lege proposamena, Udaletako 0-3 ikastetxeetako langileen lan baldintzak hobetzeko. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-22/MOC-00077. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen du sakon dezan Nafarroako Gobernuko departamentuekin, toki entitateekin eta Nafarroako elkarteekin eta mugimendu feministarekin egiten duen lan koordinatuan, gazteei zuzenduriko premiazko neurri sorta bat ezartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—10-22/MOC-00079. Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da ahalik eta azkarren eta osorik transposizioa egin dezan iturri berriztagarrietatiko energiaren erabilera sustatzearen gaineko 2018/219/EE Zuzentarauarekin eta elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komunaren gaineko 2019/944/EE Zuzentarauarekin. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—10-22/MOC-00081. Erabakia. Horren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen da “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ean taxuturiko neurriek adostasuna izan dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—10-22/MOC-00064. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burdin Defizitaren Egunaren ospakizuna susta dezan, azaroaren 26 bakoitzean Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraraziz. Osasun Batzordeak onetsia (8. or.).

—10-21/MOC-00115. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidearen gaineko erabakiak baloratzeko lantalde bat eratu dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (9. or.).

—10-22/MOC-00080. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala esku har dezan Volkswagen taldeari eskatze aldera Landabengo plantako enpresa-batzordearekin lortu ziren akordioak betetzea, ibilgailu elektrikoa ekoizteari eta enplegua mantentzeari buruzkoak. Osoko Bilkurak ezetsi du (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-22/ELC-00007. Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kideak izendatzea (10. or.).

—10-22/CIE-00001. Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatzeko Batzorde Berezia. Batzordea eratzea eta horren eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak (10. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—10-22/DLF-00003. 3/2022 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, aldatzen duena apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Osoko Bilkurak baliozkotu du (12. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00009. Foru Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

Foru Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzekoa

Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka da, eta oso kasu zehatzetan baizik ez dira zuzenean ematen, besteak beste, "dirulaguntza izendunak" izenaz ezagutzen direnak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan jasota daudenak alegia. Manu horren arabera, ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuei buruzko Foru Legean aurreikusitako dirulaguntzak zuzenean eman daitezke, Parlamentuak onetsitako zenbatekoan, helburu jakin baterako eta hartzaile jakin bat identifikatuta. Horrek ez du eragozten foru lege horretan araututako gainerako gaiak aplikatzen jarraitzea: oinarri arautzaileen edukia, justifikazioen araubidea, aurrerakinak eta ordainketak, gastu diruz lagungarriak.

Bestalde, Nafarroako 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 20/2017 Foru Legean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 40. artikulua aldatu zen, etorkizuneko ekitaldien kargura gastu-konpromisoak hartzea eragozteko, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17.2.a) artikuluan jasotako dirulaguntzak ematen direnean. Artikulu horren testuak behartzen du dirulaguntza

izendunen oinarri arautzaileak eratzera halako moldez non obligazioak ekitaldi berean aitortuko diren, eta horrek oso eragin negatiboa izan dezake lortu nahi den helburuan; izan ere, litekeena da proiektuak edo jarduerak gauzatzeko denbora luzeagoa behar izatea ekitaldiaren amaieran obligazioa aitortu beharrak dakarrena baino, eta aurrerakina dirulaguntzak ordaintzeko modu gisa erabiltzea ez da beti posible izaten. Dirulaguntzaren xede diren jarduketarako denbora luzeagoaren beharra bereziki nabarmena da ziurgabetasun ekonomikoko garai hauetan, non kontratazio publikoko prozesuetan atzerapenak gertatzen ari baitira lizitatzailerik ez dagoelako eta kontratuen adjudikazioa atzeratzen ari delako; hori eragin handia izaten ari da kontratazio publikoari buruzko araudiaren mende dauden erakundeek jasotzen dituzten dirulaguntzetan.

Ondorio negatibo horiek saihesteko, beharrezkoa da dirulaguntza horien ordainketa aurreratua egiteko aukera, 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluan jasotakoa, "dirulaguntza izendunetara" zabaltea, aurrekontuaren urteko denbora-mugak ez dezan eragin justifikaziorik gabeko murrizketarik dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera gauzatzeko. Horrela, obligazioak ekitaldi berean aitortu beharko dira beti, eta dirulaguntza ematen duten organoek dirulaguntza horien jarraipena eta egiaztapenak egin beharko dituzte Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 38. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bestalde, ziurtatu behar da diruz lagundutako jarduketak berehala hasiko direla gauzatzen, eta gauzatuko direla arrazoizko epeetan, jarduera horien izaerarekin bat datozenetan; bestela, onuradunaren aldi baterako finantzaketa-mekanismo bihur liteke, emandako dirulaguntzaren izaera finalistarekin bateraezina da, eta nekez justifika daiteke eraginkortasunaren ikuspegitik, onura publikoko helburu bat lortzeari dagokionez. Dagoeneko finantzatuta dauden jarduketak gauzatzean

justifikaziorik gabeko atzerapenak saihesteko, egokitzen da 33.5 artikuluari beste paragrafo bat gehitzea, justifikazio-epetari buruzkoa.

Dirulaguntzei buruzko Foru Legea adierazitako moduan aldatuta, lehen aipatutako ondorio negatiboak saihestuko dira. Hala ere, ekitaldi honetan jada emandako dirulaguntzetarako, komenigarria litzateke bermatzea oinarri arautzaileak aldatu ahal direla emandako zenbatekoaren aurrerakinaren aukera sartzeko. Aldaketa horretarako ez litzateke arazorik egon behar, baina dirulaguntzak ematea oinarritu zuen esparru juridikoa ez den beste bat aplikatu nahi denez, arrazoizkoa da planteatzea aldaketa horiek lege-estaldura espezifikoak izan behar dutela. Horrenbestez, hori jasoko duen xedapen iragankor bat gehitu beharko litzateke.

Artikulu bakarra. Aldaketa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean.

Bat. 33. artikularen 2. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Gainerako onuradunen kasuan, emandako dirulaguntzaren ordainketak aurreratzen ahalko dira dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan hori berariaz aurreikusten denean soilik, oinarriok ezarritako muga, baldintza eta, hala egokituz gero,

bermeekin, eta, betiere, dirulaguntzaren xedeak betetzeko funts-horniduraren beharra justifikatzen baldin bada, edo foru lege honen 17. artikuluko 2.a) apartatuan adierazitakoaren babesean emandako dirulaguntzak direnean”.

Bi. 33. artikularen 5. apartatuari beste paragrafoa bat gehitzen zaio. Hauxe da edukia:

“Oinarri arautzaileek dirulaguntzaren guztizko aurrerakina emateko aukera ezartzen duten kasuetan, diruz lagundutako jarduera dirulaguntza ematen den ekitaldian hasi beharko da, eta gauzatzeko epea izanen da dirulaguntzaren izaerari dagokiona, baina gainditu gabe Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean urte anitzeko gastu-konpromisoetarako oro har jasotakoa”.

Xedapen iragankorra. Emanik dauden dirulaguntzak.

Foru lege honen edukia aplikatuko zaie Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2 a) artikuluan xedatutakoaren babesean emanik dauden dirulaguntzei.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-22/PRO-00014. Foru Lege proposamena, Udaletako 0-3 ikastetxeetako langileen lan baldintzak hobetzekoa.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko irailaren 22an, erabaki du aintzat ez hartzea Udaletako 0-3 ikastetxeetako langileen lan baldintzak hobetzeko Foru Lege proposamena, zeina Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2022ko ekainaren 21eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00077. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen du sakon dezan Nafarroako Gobernuako departamentuekin, toki entitateekin eta Nafarroako elkarteekin eta mugimendu feministarekin egiten duen lan koordinatuan, gazteei zuzenduriko premiazko neurri sorta bat ezartzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen du sakon dezan Nafarroako Gobernuako departamentuekin, toki entitateekin eta Nafarroako elkarteekin eta mugimendu feministarekin egiten duen lan koordinatuan, gazteei zuzenduriko premiazko neurri sorta bat ezartzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen du sakon dezan Nafarroako Gobernuako departamentuekin, toki entitateekin eta Nafarroako elkarteekin eta mugimendu feministarekin egiten duen lan koordinatuan, gazteei zuzenduriko premiazko neurri sorta bat ezartzeko, berdintasunean, errespetuan eta indarkeria matxisten erauzketan oinarritutako harreman afektibo-sexualei buruzko prestakuntza ematen laguntzeko”.

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

**10-22/MOC-00079. Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premia-
tzen da ahalik eta azkarren eta osorik transposizioa egin dezan iturri
berriztagarrietatiko energiaren erabilera sustatzearen gaineko
2018/219/EE Zuzentarauarekin eta elektrizitatearen barne merkatuari
buruzko arau komun gaineko 2019/944/EE Zuzentarauarekin.**

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Estatuko Gobernua premia-tzen da ahalik eta azkarren eta osorik transposizioa egin dezan iturri berriztagarrietatiko energiaren erabilera sustatzearen gaineko 2018/219/EE Zuzentarauarekin eta elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komun gaineko 2019/944/EE Zuzentarauarekin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

«1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premia-tzen du ahalik azkarrena eta osotasunez egin dezan transposizioa, iturri berriztagarrietatiko energiaren erabilera sustatzearen gaineko 2018/219/EE Zuzentarauarena eta elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komun gaineko 2019/944/EE Zuzentarauarena.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premia-tzen du 244/2019 Errege-dekretua alda dezan, halako moduz non handitu ahalko den kontsumitzailearen eta ekoizlearen arteko distantziaren muga –gaur egun 500 metrora mugatuta dago–, autokontsumorako sorkuntza-gaitasuna ahal den handiena izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premia-tzen du, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako kontseilariak Green Transition and Energy System Integration-eko

zuzendariari Bruselan zuzenean eginiko eskaeraren haritik, Europako Batzordeari eska diezaion enkante-sistema aldatzea eta energia berriztagarriko industriaren arloko tokiko edukia indartzea, beste merkatu batzuetan dauden aduana-zerga babesleen antzekoak ezarrita.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premia-tzen du potentzia txikiko energia ekoizteko instalazioen sarearekiko konexioa arautzen duen 1699/2011 Errege-dekretua alda dezan, estalki berean bi instalazio independente jarri ahal izateko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du gure erkidegoko toki entitateekin lankidetzan aritu dadin –industrialde-ak dituzten guztiekin, batez ere–, lurralde antolamendurako tresnen bidez, deskarbonizazioan lagunduko duten eta energia berriztagarrien garapena eta trantsizio energetikorako aurrerabidearen eraginkortasuna areagotuko duten osagai teknologien ezarpena sustatzeko –xafla fotovoltaikoak, minieolikoa, hidrogenoa...–.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Nafarroan gara dezan “Autokontsumo kolektiboaren kudeatzailea”ren figura, zeina jasotzen baita Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren “Autokontsumoaren Ibilbide-orria”».

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

10-22/MOC-00081. Erabakia. Horren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen da “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ean taxuturiko neurriek adostasuna izan dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen da “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ean taxuturiko neurriek adostasuna izan dezaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

«1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ean taxutu-

riko neurriek adostasuna izan dezaten; eta, horrenbestez, toki entitateen, interes taldeen eta ukitutakoen borondatezko parte-hartzetik proposa daitezten. Adostasun hori lortze aldera, ezinbestekoa da, horrenbestez, ukitutako entitateekin negoziazio fase bat irekitzea.

2. “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremuak ukitzen dituen guztientzat konpentsazio formulak ezar daitezela, bai eta prozedurak eta haien eskura jarri beharreko baldintzak ere».

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

10-22/MOC-00064. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burdin Defizitaren Egunaren ospakizuna susta dezan, azaroaren 26 bakoitzean Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraraziz.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko irailaren 23an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burdin Defizitaren Egunaren ospakizuna susta dezan, azaroaren 26 bakoitzean Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraraziz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Burdin Defizitaren Egunaren ospakizuna susta dezan, azaroaren 26 bakoitzean Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraraziz, Osasun Departamentuaren laguntzaz, osasun-arazo

honen inpaktua ezagutzearen, beraren sintomak modu goiztiarrean atzematearen eta tratamendu goiztiar bat ezartzearen garrantziaz biztanleria kontzientziatzeko.

2. Informazio-kanpainak egin ditzan burdin defizitaren inpaktuari buruz, horrek ematen dituen sintomak identifikatzeari buruz eta gaixotasun kronikoak dituztenei ekarri ahal dizkien konplikazioei buruz.

3. Berariazko ekintzak egin ditzan Osasun Departamentutik, burdin defizita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan goiztiarki identifikatu eta tratatzeko”.

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

**10-21/MOC-00115. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-
tzen da N-121-A errepidearen gaineko erabakiak baloratzeko lantalde
bat eratu dezan.**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko irailaren 22an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da N-121-A errepidearen gaineko erabakiak baloratzeko lantalde bat eratu dezan". Mozioa Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu zuen eta eta 2021eko ekainaren

18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

**10-22/MOC-00080. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-
tzen da berehala esku har dezan Volkswagen taldeari eskatze aldera
Landabengo plantako enpresa-batzordearekin lortu ziren akordioak
betetzea, ibilgailu elektrikoa ekoizteari eta enplegua mantentzeari
buruzkoak.**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko irailaren 22an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da berehala esku har dezan Volkswagen taldeari eskatze aldera Landabengo plantako enpresa-batzordearekin lortu ziren akordioak betetzea, ibilgailu elektrikoa ekoizteari eta enplegua mantentzeari buruzkoak".

Mozioa José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu zuen eta 2022ko irailaren 20ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-22/ELC-00007. Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kideak izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko irailaren 22an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Honakoak izendatzea Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeko kide, Nafarroako Parlamentuak proposatuta:

- Esther Aldave Monreal andrea.
- Ana Carmona Juanmartiñena andrea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

10-22/CIE-00001. Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatzeko Batzorde Berezia.

BATZORDEA ERATZEA ETA HORREN ERAKETA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko González Martínez jaunak 2022ko ekainaren 30ean idazki bat aurkeztu zuen, zeinean eskatzen baitzuen Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzea, Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera.

Erregelamenduko 63. artikuluan xedatutakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatzeko Batzorde Berezia eratzea.

2. Batzorde horren eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko honako arau hauek onestea, Eledunen Batzarrarekin adostuta:

“**Lehena.** Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatzeko Batzordea batzorde berezia da, bost hilabeteko epean txostena emateko sortua.

Bigarrena. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzeko kide batek osatuko du batzordea. Bere erabaki guztiak boto ponderatuaren sistemaren bitartez hartuko ditu, batzordeburuaren hautaketa barne. Eledun bakoitzak, bere taldea edo elkartearen zenbat foru parlamentari osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean.

Hirugarrena. Batzordea eratzeko bilkura Legebiltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean eginen da, talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek Batzordean izanen dituzten ordezkariak hautatu ondoren.

Laugarrena. Batzordea eratzeko bilkuran batzordeburua hautatuko da; hura ez badago, batzordekiderik zaharrena ariko da haren ordeiz. Batzordeari laguntzen dion legelaria izanen da batzordeko idazkari.

Bosgarrena. Batzordeak laguntza eta lankidetzatza eskatu ahalko dizkio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, egoki jotzen dituen kargudun eta funtzionarioak batzordera etor daitezen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezen. Orobat eskatu ahalko du arlo horretako beste pertsona eta aditu batzuk ere etor daitezen.

Seigarrena. Batzordearen bilkurak ez dira jendaurrekoak izanen. Hala ere, hedabideen ordezkariak, nortasuna behar bezala frogatuta, joaten ahalko dira batzordera, bilkura horiek isilpekoak direnean izan ezik. Hedabideak joan daitezkeen bilkurak ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmititu ahalko dira.

Batzordearen bilkurak isilpekoak izanen dira bere kideen gehiengo osoak hala erabakitzen duenean, batzordeko lehendakariak, bi talde parlamentariok edo batzordeko kideen bostenak hala eskaturik. Isilpeko izaerako bilkura bat bukatu ondoren, Batzordeburuak hartu diren erabakien berri eman ahalko die hedabideei.

Zazpigarrena. Batzordea agindutako lana bukatzean iraungiko da eta, betiere, legegintzaldia amaitzean.

Zortzigarrena. Batzordearen antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, arau hauetan aurreikusi ez den guztian aplikatuko da Legebiltzarreko Erregelamenduak batzorde berezietarako oro har xedatzen duena eta, halakorik ezean, batzorde arruntetarako xedatzen duena.

3. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek heldu den 2022ko irailaren 29ko 17:30ak baino lehen jakinaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari zein diren haiek batzordean izanen dituzten ordezkariak.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-22/DLF-00003. 3/2022 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, aldatzen duena apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 22an egindako Osoko Bilkuran, baliozkotu zuen 3/2022 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, aldatzen duena apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Foru lege-dekretu hori 2022ko abuztuaren 26ko 170. Nafarroako Aldizkari Ofizialean

eta 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko irailaren 23an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya